

DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIAN ONDOKO LAN POLTSAK ERATZEKO DEIALDIA ETA HAUTAKETA PROZESUA ARAUTZEN DITUZTEN BALDINTZA OROKORRAK:

- **BALIO ASKOTARAKO GIDARI-KOBRATZAILEA**
- **BALIO ASKOTARAKO GIDARI-KOBRATZAILEA, PERTSONA MINUSBALIATUENTZAT**
- **GARBIKETA-DEPOSITUAK BETETZEA LANAK, PERTSONA MINUSBALIATUENTZAT**

LEHENA.- DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen xedea da **ondoren adierazten diren Lan Poltsak eratzea** Donostiako Tranbia Konpainiarako:

- **Balio askotarako Gidari-Kobratzailea**
- **Balio askotarako gidari-kobratzailea, pertsona minusbaliatuentzat**
- **Garbiketa-Erregai deposituak betetzea, pertsona minusbaliatuentzat**

DTK-k duen berezko Hitzarmen Kolektiboko 10. mailari dagokion ordainsaria izango dute Balio askotarako gidari-kobratzaile lanpostukoek eta 6. mailako ordainsaria Garbiketa-Erregai deposituak betetzea lanpostukoek. Lanaldia enpresaren hitzarmenak kasuan kasu ezarritakoa izango da, betiere lanpostu bakoitzaren izaera eta premiak kontuan izanda.

Eratzen diren lan poltsak aldi baterako falta diren langileen lanpostuak betetzeko erabiliko dira. Era berean, enpresan egon daitezkeen langileen premia behin betiko betetzeko erabili ahal izango dira, hamaikagarren oinarrian ebaluazioa eta langile berriak hartzeari dagokionez ezartzen dena betez.

BIGARRENA.- HAUTAGAIEN BETEKIZUNAK

Deialdian onartua izateko eta, kasuan kasu, hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko, **hautagaiek honakoak bete beharko dituzte:**

BETEKIZUN OROKORRAK:

- Europar Batasuneko kide den estaturen bateko edo Espainiako Estatuarekin lan hitzarmen bat izenpetuta duen herrialderen bateko nazionalitatea izatea edo lanerako eta bizitzeko baimena izatea.

- 16 urte beteta edukitzea eta derrigorrezko erretiroa hartzeko adina baino gehiago ez izatea.
- Lanpostu bakoitzari dagozkion zereginak betetzeko gaitasuna izatea.
- Lanpostuaren berezko zereginak betetzea eragotziko dion inolako gaixotasun edo akats fisikorik ez psikikorik ez izatea. Betekizun hau egiaztatzeke medikuaren azterketaren agiria aurkeztu beharko da dagokion lanpostuan sartu aurretik.
- Zigor espediente bidez Administrazio Publikoaren zerbitzutik baztertuta ez egotea.

Hautaketa Prozesuak garatzen ari direla, Hautaketa Batzordeak egokitzen joko balu, pertsona minusbaliatuei erreserbatutako Lan Postuarentzako hautagaiei egoki irizitako mediku probak eta azterketak egin ahal izango zaizkie, Hautaketa Prozesuak amaitu arte itxaron beharrik gabe. Mediku azterketa eta proba horiekin minusbaliotasunaren maila lanpostura egokitzen den ala ez egiaztatu ahal izango da, besteak beste.

BALIO ASKOTARAKO GIDARI-KOBRTZAILEA

- "D" klaseko gidabaimena izatea.
- 2008ko irailaren 11az geroztik lortutako "D" klaseko gidabaimenak dituztenek derrigorrez eduki behar duten Gaitasun Profesionalaren Egiaztagiria (CAP) izatea, eta gainontzekoek, egiaztagiri hori lortzeko ezarritako egutegiaren arabera (uztailaren 20ko 1032/2007 Errege Dekretua) dagokien datarako eskuratzea.

BALIO ASKOTARAKO GIDARI-KOBRTZAILEA, PERTSONA MINUSBALIATUENTZAT

- "D" klaseko gidabaimena izatea.
- 2008ko irailaren 11az geroztik lortutako "D" klaseko gidabaimenak dituztenek derrigorrez eduki behar duten Gaitasun Profesionalaren Egiaztagiria (CAP) izatea, eta gainontzekoek, egiaztagiri hori lortzeko ezarritako egutegiaren arabera (uztailaren 20ko 1032/2007 Errege Dekretua) dagokien datarako eskuratzea.
- Minusbaliatu izaera legez errekonozitua izatea, %33ko minusbaliotasunarekin edo minusbaliotasun handiagoarekin, baina garraio ibilgailuak gidatzeko gaitasunik gabe uzten duen minusbaliotasuna izan gabe. Ildo honetan, minusbaliotasuna eta lanpostuaren zereginak bateragarriak direla bermatzeko beharrezkoa egingo da eta beharrezko neurriak hartuko dira. Administrazioan horretan eskumena duen organoak emango du baldintza hori betetzen dela ziurtatzen duen agiria.

GARBIKETA-ERREGAI DEPOSITUAK BETETZEA, PERTSONA MINUSBALIATUENTZAT

- "D" klaseko gidabaimena izatea.
- 2008ko irailaren 11az geroztik lortutako "D" klaseko gidabaimenak dituztenek derrigorrez eduki behar duten Gaitasun Profesionalaren Egiaztagiria (CAP) izatea, eta

gainontzekoek, egiaztagiri hori lortzeko ezarritako egutegiaren arabera (uztailaren 20ko 1032/2007 Errege Dekretua) dagokien datarako eskuratzea.

- Minusbaliatu izaera legez errekonozitua izatea, %33ko minusbaliotasunarekin edo minusbaliotasun handiagoarekin, baina garraio ibilgailuak garbitzeko eta haien erregai deposituak betetzeko gaitasunik gabe uzten duen minusbaliotasuna izan gabe. Ildo honetan, minusbaliotasuna eta lanpostuaren zereginak bateragarriak direla bermatzeko beharrezkoa egingo da eta beharrezko neurriak hartuko dira. Administrazioan horretan eskumena duen organoak emango du baldintza hori betetzen dela ziurtatzen duen agiria.

Horretaz aparte, deialdi honen hautaketa prozesuetan honakoak baloratuko dira:

- a) **Euskararen ezagutza maila. Lanpostu guztietan euskararen 1. Hizkuntza Eskakizuna izatea baloratuko da.**
- b) **Esperientzia profesionala gidatze lanetan eta lanpostuaren berezko zereginekin lotutako bestelako esperientziak.**

HIRUGARRENA.- ONARTUA IZATEKO ESKUBIDEEN ORDAINKETA.

Deialdian onartua izateko eskubideengatik 10 euro ordainduko dira.

Eskubide horiek ordaintzeko, esandako diru zenbatekoa Oteic Taldeak KUTXAn duen ondoko kontu korrontearen zenbakian sartuko da:

2101-0206-16-0001010503

Eskubideen ordainketaren egiaztagirian hautagaiaren NA zenbakia, izena eta abizenak agertu beharko dira.

Ordainketaren egiaztagirian datu horiek behar bezala agertzen ez badira, ordainketa egin gabe dagoela ulertuko da.

Ezin izango da onarpen eskubideengatik ordaindutakoa bueltatzeko eskatu Deialdiaren Hautaketa Prozesu batean ere ez, eta, gainera, ez da inolaz ere diru hori bueltatuko.

LAUGARREN.- ONARPEN ESKABIDEAK AURKEZTEA.

Hautagaiek **onarpen eskabidea Oteic Taldearen bulegoetara bidali beharko dute edo, bestela, bulegoetan bertan entregatu** (Zuatzu Enpresa Parkea, Igeldo Eraikina, 1.

solairua, 20018 Donostia-San Sebastian), 8:00etatik 19:00etara. **Eskabidearekin batera honako dokumentuak** aurkeztu beharko dituzte, onartuak izateko:

- a) **Onarpen Eskabidearen inprimakia** ¹ behar bezala beteta (inprimakia Baldintza Orokor hauen dokumentuaren bukaeran dago, bai eta Oteic Taldearen zein DTKren bulegoetan ere)
- b) **Deialdian onartua izateko eskubideak ordaindu direla egiaztatzen duen agiria**, behar bezala identifikatuta, hirugarren oinarrian adierazten denaren arabera.
- c) **“D” klaseko gidabaimenaren fotokopia** (formatu berriko gidabaimenen kasuan, baimenaren alde bien fotokopia aurkeztu beharko da).
- d) **Kasuan kasu, 2008ko irailaren 11z geroztik lortutako “D” klaseko gidabaimenak dituztenek (uztailaren 20ko 1032/2007 Errege Dekretua) derrigorrez eduki behar duten Gaitasun Profesionalaren Egiaztagiraren (CAP) fotokopia (uztailaren 20ko 1032/2007 Errege Dekretua).**
- e) **Kasuan kasu, euskara titulu ofizialaren fotokopia.** Euskararen gutxienezko ezagutza maila (1. Hizkuntza eskakizuna edo baliokidea) egiaztatzen ez duten hautagaiek azterketa bat egin beharko dute jakiteko zein ezagutza maila duten euskaraz (azterketa honek ez du balio ofizialik izango, hautaketa prozesu honetarako baino ez du balioko).
- f) **Pertsona Minusbaliatuentzako Hautaketa Prozesuen Deialdiaren kasuan, Administrazioak horretan eskumena duen organoak luzatutako egiaztagiria,** %33ko minusbaliotasuna edo minusbaliotasun handiagoa duela legez errekonozitzen diona, baina lanpostuaren berezko zereginak betetzeko gaitasunik gabe uzten dion minusbaliotasuna izan gabe.

Behar bezala egiaztatutako hautagaitzak, hau da, beharrezko agiriekin egiaztatzen ez diren hautagaitzak Deialditik kanpo gelditu daitezke, Hautaketa Batzordeak hala erabakiz gero.

Eskabideak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa da, Deialdia egunkarietan argitaratzen den egunetik aurrera zenbatuta. Hain zuzen ere, 2010eko uztailaren 5etik 2010eko uztailaren 19ra arte izango da (biak barne).

Adierazitako epean eta moduan aurkeztutako hautagaitzak baino ez dira onartuko eta baztertu egingo dira baldintza horiek betetzen ez dituztenak.

¹ Minusbaliotasuna duten pertsonen hautaketa probak egiteko egokitzapen teknikorik behar badute, onarpen eskaeran adierazi egin beharko dute.

Dena dela, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean “D” klaseko gidabaimena eta uztailaren 20ko 1032/2007 Errege Dekretuaren eraginez klase horretako gidabaimena 200ko irailaren 11z geroztik eskuratu dutenek derrigorrez izen behar duten Gaitasun Profesionalaren Egiaztagiria (CAP) izan ez baina beste betekizun guztiak dituen edonork eskaria egina izango balu, eskaria onartuko zaio, badaezpada. Kasu horretan, halere, hautagaiek gidabaimena edo esandako egiaztagiria lortzeko bidean daudela justifikatu beharko dute, Autoeskolak emandako ziurtagiri baten bidez edo antzeko dokumentu baten bitartez Bosgarren oinarriaren arabera, egoera horretan daudenak onartu egingo dira baina modu kautelarrean. Hau da, deialdiaren lehenengo ariketa egingo den eguna baino 24 ordu aurretik egiaztatuta izan beharko dute “D” klaseko gidabaimena eta Gaitasun Profesionalaren Egiaztagiria lortzeko bidean ari direla. Hori esandako epean egiaztatu ezean, hautaketa prozesutik baztertuta geldituko dira.

BOSGARRENA.– HAUTAGAIEN ONARPENA.

Onarpen eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, **Hautaketa Prozesu bakoitzerako onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda argitaratuko da**, baztertuta gelditu direnak zergatik baztertu diren azalduta. Zerrendak www.dbus.es web orrian zein Donostiako Tranbia Konpainiaren bulegoetan egongo dira ikusgai. **Zerrenda hori gutxi gorabehera astebetean argitaratuko da eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita.**

Baztertuta gelditu diren hautagaiek beharrezkotzat jotzen dituzten erreklamazioak edo akats zuzenketak egin ahal izango dituzte, eta horretarako bi egun izango dituzte zerrendak argitaratzen diren egunetik hasita, egun hori barne dagoela. Erreklamazioak edo akats zuzenketa zerrendan azaltzen den moduan egingo dira.

Alegazioak Hautaketa Batzordeak ebatziko ditu, eta behin ebatzita, hautaketa prozesu bakoitzerako onartutako hautagaien behin betiko zerrenda argitaratuko du. Behin betiko zerrendak ere www.dbus.es web orrian eta Donostiako Tranbia Konpainiaren bulegoetan argitaratuko dira, argitaratu ere alegazioak aurkezteko epea amaitu eta astebetean gutxi gorabehera.

Onartu gabe jarraitzen duten hautagaiek ezin izango dute deialdiarekin jarraitu ez eta deialdiaren hautaketa prozesuekin ere.

SEIGARRENA.- BALIO ASKOTARAKO GIDARI-KOBRATZAILEEN LAN POLTSARAKO HAUTAKETA PROZESUA

Hautaketa prozesua bera izango da Balio askotarako Gidari-Kobratzaileen zein Pertsona Minusbaliatuei erreserbatutako Balio askotarako Gidari-Kobratzaileen lan poltsetarako.

Fase bat baino gehiago egongo da, eta fase guztiak **baztertzailak izango dira**. Fase horietan honako probak egingo dira: **Proba Profesionalak** (teorikoak eta praktikoak); **Proba Psikoteknikoak eta Jarrerakoak**, hautagaiak lanpostuaren zereginak betetzeko duten gaitasuna eta ahalmena ikusteko; **beste betekizun batzuen balorazioa**; eta **Elkarrizketa eta Analisi Pertsonala**.

Hautaketa Batzordeak probak egiteko hurrenkera erabaki dezake, hamaikagarren oinarrian aipatzen den eta derrigorrezkoa eta baztertzaila izango den mediku azterketarena barne.

Honakoak dira Hautaketa Prozesuaren fase nagusiak:

- 1.- Ezagutza Profesionalei buruzko proba
 - 1.1. Proba profesional teorikoa
 - 1.2. Proba profesional praktikoa: Gidatze proba
- 2.- Proba psikoteknikoak eta jarrerakoak
- 3.- Beste betekizun batzuen balorazioa (Euskara eta esperientzia).
- 4.- Elkarrizketa eta Analisi Pertsonala.

Bost fase horietan zehar gehienez 100 puntu lortu ahal izango dira. Honakoak dira 100 puntu horien balorazioa eta fase bakoitzean lortu daitezkeen gehienezko eta gutxienezko puntuazioak:

FASEA	Lortu daitekeen gehienezko puntuazioa	Eskatzen den gutxienezko puntuazioa
1. EZAGUTZA PROFESIONALEI BURUZKO PROBA 1.1. Proba profesional teorikoa 1.2. Proba profesional praktikoa: Gidatze proba 1. Guztirakoa...	 10 40 50	 5 30 35
2. PROBA PSIKOTEKNIKOAK ETA JARRERAKOAK 2. Guztirakoa	 25	 --
3. BESTE BETEKIZUN BATZUEN BALORAZIOA 5.1. Euskara 5.2. Esperientzia 3. Guztirakoa 2 + 3 Guztirakoa	 5 10 15 40	 -- -- -- 24

4. ELKARRIZKETA ETA ANALISI PERTSONALA		
4. Guztirakoa	10	5
GUZTI-GUZTIRA	100	64²

1. FASEA: EZAGUTZA PROFESIONALAK:

- 1.1. **Azterketa teorikoa:** Proba teorikoa izango da, “D” klaseko gidabaimena lortzeko betekizunei buruzkoa, hiriko kale izendegiari buruzkoa eta DTK-ko autobus zerbitzuak egiten dituen ibilbideei buruzkoa.

Proba hau gainditzeko, gutxienez 5 puntu lortu beharko dira, proban gehienez lortu ahal izango diren 10 puntuak oinarri hartuta. Gutxienezko puntuazio hori edo puntuazio handiagoa lortzen duten hautagaiak hautaketa prozesuko hurrengo fasera igaro ahal izango dute.

Hasierako irizpidearekin proba gainditzen dutenak 200 baino gutxiago badira, Hautaketa Batzordeak proba horretan eskatzen den gutxienezko puntuazioa gutxitu dezake. Gutxienezko puntuazio hori gutxituta ere, beti 4 puntu edo gehiago izango da, eta onartutako hautagaiak 200 direnean ezin izango da gehiago jaitsi gutxienezko puntuazio hori.

Proba 2010eko irailaren 11n egingo dela aurreikusten da. Halere, deialdi ofiziala bederatzigarren oinarrian adierazten diren bide ofizialen bidez egingo da.

- 1.2. **Azterketa praktikoa: Gidatze proba.** Arrazoi operatiboak direla eta, fase honetan aurreikusten den proba 2. eta 3. faseetako probak bukatu eta ebaluatu ondoren egingo da.

Proba profesional praktikoa (Gidatze proba) gainditzeko gutxienez behar izango diren puntuak 30 dira, proban gehienez lortu ahal izango diren 40 puntuetatik. Gutxienezko puntuazio horrekin Balio askotarako gidari-kobratzaileen lan poltsan egoteko aukera izango du hautagaiak.

2. FASEA: PROBA PSIKOTEKNIKOAK ETA JARRERAKOAK

² Onartuta izateko guztira atera behar den gutxienezko puntuazioa, 1.1 faserako ezarritako gutxienezko puntuazioaren menpe dagoena.

Proba psikotekniko eta jarrerako bat baino gehiago egingo dira, hautagaiek lanposturako behar diren gaitasunak eta jarrerak dituzten ala ez ikusteko.

Fase honetan gehienez 25 lortu ahal izango dira, baina 2. eta 3. faseetarako batera ezarri den gutxienezko puntuazioa lortu beharko da. Gutxienezko puntuazio hori ondorengo puntuan datorrena da.

3. FASEA: BESTE BETEKIZUN BATZUEN BALORAZIOA

Hautaketa Batzordeak Hautaketa Prozesuan baloratzea nahi duten betekizunak alegatzeko epeak ezarriko ditu. Betekizun horiek honelaxe egiaztatuko dira:

- **Euskararen ezagutza: Proba idatzia izango da**, eta Hautaketa Prozesuan zehar egingo da, 2. fasean seguru asko. Proba hori ez dute egin beharrik izango eta, gainera, baldintza honetarako ezarritako gehienezko puntuazioa lortuko dute eskabideak aurkezteko azken egunean euskararen 1. Hizkuntza Eskakizuna egiaztatuta dutenek, hau da, 1. Hizkuntza Eskakizunaren titulua edo baliokidea den titulu ofiziala onarpen eskaerarekin batera aurkeztuta dutenek.
- **Gidatze Esperientzia Profesionala: Gizarte Segurantzak egindako ziurtagirierekin edota enpresa ziurtagirierekin egiaztatuko da.**

Fase honetan gehienez 15 puntu lortu beharko dira (Euskararen ezagutzan, gehienez 5 puntu, eta Gidatze Esperientzia Profesionalean, gehienez 10 puntu).

Hurrengo fasera igarotzeko 2. Fasean + 3. Fasean gutxienez lortu behar den puntuazioa 24 da, fase horietan batera guztira atera ahal diren 40 puntuak oinarri hartuta.

4. FASEA: ELKARRIZKETA ETA ANALISI PERTSONALA

Hautagaiei elkarrizketa egingo zaie banan-banan, eta horretaz aparte banakako edota taldeko beste proba batzuk ere egingo zaizkie, ezagutzeko ea haien ezaugarriak bete nahi duten lanpostuaren ezaugarriekin bat datozen ala ez.

Fase honetan 5 puntu lortu beharko dute gutxienez, proban atera gehienez atera daitezkeen 10 puntuak oinarri hartuta.

Deialdia gainditzeko puntuaziorik txikiena 64 da, Balio askotarako Gidari-Kobratzaileen lan poltsan eta pertsona minusbaliatuei erreserbatutako Balio askotarako Gidari-Kobratzaileen lan poltsan sartzeko gehienez atera daitezkeen 100 puntuak oinarri hartuta.

Fase bakoitzerako deia hautagai guztiei batera egingo zaie. Hautaketa Batzordeak deitutako probarakoa ezarritako lekuan, egunean eta orduan agertzen ez diren hautagaiak Hautaketa Prozesutik kanpo geldituko dira behin betiko.

Prozesu honetan aukera berdintasuna bermatuta egongo da (gizonezkoena zein emakumezkoena).

Probak egiteko deitutako hautagaiek NAN, pasaporte edo gidabaimena erakutsi beharko dute. Dokumentu horietako bat aurkeztu ezean, ezin izango dituzte probak egin.

ZAZPIGARRENA.- PERTSONA MINUSBALIATUEI ERRESERBATUTAKO GARBIKETA-ERREGAI DEPOSITUAK BETETZEA LANETARAKO LAN POLTSETARAKO HAUTAKETA PROZESUA.

Fase bat baino gehiago egongo da, eta fase guztiak **baztertzailak izango dira**. Fase horietan honako probak egingo dira: **Proba Profesionalak, Proba Psikoteknikoak eta Jarrerakoak**, hautagaiek lanpostuaren zereginak betetzeko duten gaitasuna eta ahalmena ikusteko; **beste betekizun batzuen balorazioa eta Elkarrizketa Pertsonala**.

Hautaketa Batzordeak probak egiteko hurrenkera erabaki dezake, hamaikagarren oinarrian aipatzen den eta derrigorrezkoa eta baztertzaila izango den mediku azterketarena barne.

Honakoak dira Hautaketa Prozesuaren fase nagusiak:

- 1.- Proba profesional praktikoa: Maniobrak
- 2.- Proba psikoteknikoak eta jarrerakoak
- 3.- Beste betekizun batzuen balorazioa (Euskara eta esperientzia).
- 4.- Elkarrizketa pertsonala.

³ Onartuta izateko gutzira atera behar den gutxienezko puntuazioa, 1.1 faserako ezarritako gutxienezko puntuazioaren menpe dagoena.

Lau fase horietan zehar gehienez 100 puntu lortu ahal izango dira. Honakoak dira 100 puntu horien balorazioa eta fase bakoitzean lortu daitezkeen gehienezko eta gutxienezko puntuazioak:

FASEA	Lortu daitekeen gehienezko puntuazioa	Eskatzen den gutxienezko puntuazioa
1. PROBA PROFESIONAL PRAKTIKOA (Maniobrak)		
1. Guztirakoa...	<u>40</u>	<u>30</u>
2. PROBA PSIKOTEKNIKOAK ETA JARRERAKOAK		
2. Guztirakoa	25	--
3. BESTE BETEKIZUN BATZUEN BALORAZIOA		
3.1. Euskara	5	--
3.2. Esperientzia	10	--
3. Guztirakoa	15	--
2 + 3 Guztirakoa	<u>40</u>	<u>24</u>
4. ELKARRIZKETA PERTSONALA		
4. Guztirakoa	<u>20</u>	<u>10</u>
GUZTI-GUZTIRA	100	64

1. FASEA: PROBA PROFESIONAL PRAKTIKOA

Maniobren proba bat egitea izango da.

Maniobren Proba Profesional Praktikoa gainditzeko gutxienez 30 puntu atera beharko dira, guztira 40 puntu atera ahal izango direlarik. Puntuazio horrekin, halaber, pertsona minusbaliatuei erreserbatutako Garbiketa-Erregai deposituak betetzea lanetarako lan poltsan sartzeko aukera izaten jarraituko dute.

2. FASEA: PROBA PSIKOTEKNIKOAK ETA JARRERAKOAK

Proba psikotekniko eta jarrerako bat baino gehiago egingo dira, hautagaiak lanposturako behar diren gaitasunak eta jarrerak dituzten ala ez ikusteko.

Fase honetan gehienez 25 lortu ahal izango dira, baina 2. eta 3. faseetarako batera ezarri den gutxienezko puntuazioa lortu beharko da. Gutxienezko puntuazio hori ondorengo puntuan datorrena da.

3. FASEA: BESTE BETEKIZUN BATZUEN BALORAZIOA

Hautaketa Batzordeak Hautaketa Prozesuan baloratzea nahi duten betekizunak alegatzeko epeak ezarriko ditu. Betekizun horiek honelaxe egiaztatuko dira:

- **Euskararen ezagutza: Proba idatzia izango da**, eta Hautaketa Prozesuan zehar egingo da, 2. fasean seguru asko. Proba hori ez dute egin beharrik izango eta, gainera, baldintza honetarako ezarritako gehienezko puntuazioa lortuko dute eskabideak aurkezteko azken egunean euskararen 1. Hizkuntza Eskakizuna egiaztatuta dutenek, hau da, 1. Hizkuntza Eskakizunaren titulua edo baliokidea den titulu ofiziala onarpen eskaerarekin batera aurkeztuta dutenek.
- **Lanpostuarekin lotutako esperientzia profesionala: Gizarte Segurantzak egindako ziurtagiriek** edota enpresa ziurtagiriek egiaztatuko da.

Fase honetan gehienez 15 puntu lortu beharko dira (Euskararen ezagutzan, gehienez 5 puntu, eta Gidatze Esperientzia Profesionalean, gehienez 10 puntu).

Hurrengo fasera igarotzeko 2. Fasean + 3. Fasean gutxienez lortu behar den puntuazioa 24 da, fase horietan batera guztira atera ahal diren 40 puntuak oinarri hartuta.

4. FASEA: ELKARRIZKETA PERTSONALA

Hautagaiei elkarrizketa bat egingo zaie banaka, bete nahi lanpostuaren ezaugarriak eta bereak bat datozen ala ez ikusteko.

Elkarrizketan gutxienez 10 puntu lortu beharko dira gainditzeko, proba horretan gehienez lortu ahal izango diren 20 puntuak oinarri hartuta.

Deialdia gainditzeko puntuaziorik txikiena 64 da, Pertsona Minusbaliatuentzako Garbiketa-Erregai deposituak betetzea lanetarako lan poltsan sartzeko gehienez atera daitezkeen 100 puntuak oinarri hartuta.

Prozesu honetan aukera berdintasuna bermatuta egongo da (gizonezkoena zein emakumezkoena).

Probak egiteko deitutako hautagaiek NAN, pasaportea edo gidabaimena erakutsi beharko dute. Dokumentu horietako bat aurkeztu ezean, ezin izango dituzte probak egin.

DTK-k Pertsona Minusbaliatuei erreserbatutako Gidari-kobratzaileen Lan Poltsan sartzeko hautagai direnei deitu ahal izango die Pertsona Minusbaliatuei erreserbatutako Garbiketa-Erregai deposituak betetzea lanetarako lan poltsak osatzeko probetarako, beti ere lan poltsa horiek osatzeko hautaketa prozesuetan parte hartzeko bigarren oinarrian adierazten diren baldintzak betetzen badituzte baina Balio askotarako Gidari-Kobratzaileen lan poltsarako hautaketa prozesuko faseren bat gainditu ez badute.

Lan poltsa horretan sartzeko **Hautaketa Prozesuko proba bereziak gainditu beharko dituzte** (1. Fasea, Proba profesional praktikoa (Maniobrak); 2. Fasea, Proba psikoteknikoak eta jarrerakoak; 3. Fasea, beste betekizun batzuen balorazioa; eta 4. Fasea, Elkarriketa pertsonala), eta proba horietan adierazitako gutxienezko puntuazioak lortu beharko dituzte.

ZORTZIGARRENA.- INFORMAZIOA ETA JAKINARAZPENAK.

Hautaketa prozesuen deialdien ondorioz eman beharreko informazioak eta egin beharreko jakinarazpenak (zerrendak, hautaprobetarako deialdiak, emaitzak...) **ondorengo jakinarazpen bide ofizialetatik argitaratuko dira:**

- Web orria: www.dbus.es
- - **Donostiako Tranbia Konpainiako iragarki taula** (Fernando Sasiain, 7. Donostia-San Sebastian).

BEDERATZIGARRENA.- ALEGAZIOAK.

Alegazioak edota akatsen zuzenketak Hautaketa Batzordeari zuzendu behar zaizkio unean-unean adierazten den epean eta moduan.

Erreklamazioak egiteko epeak berez agortzen dira, hau da, ezin izango da erreklamaziorik egin behin fase bat amaituta eta beste bat hasita dagoenean.

Erreklamazio guztiak Hautaketa Batzordeak ebatziko ditu, eta ebatzitakoa Hautaketa Prozesuen fase bakoitzari dagozkion behin betiko zerrendetan geldituko da islatuta.

HAMARGARRENA.- HAUTAKETA BATZORDEA.

Hautaketa Batzordearen osaera Administrazio Kontseiluak finkatutakoa izango da.

Hautaketa Batzordeak Hautaketa Prozesuak objektiboak izan daitezela zainduko du. Halaber ahalmena dauka hautaketa prozesuetan sortzen diren zalantzak argitzeko eta Deialdia arau hauen arabera ondo joan dadila bermatzeko beharrezko diren erabakiak hartzeko, eta, hor dela eta, oinarri hauetan aurreikusita ez dauden kasuetan erabili behar diren irizpideak ezarriko ditu.

Hautaketa Batzordeak egiaztatu ahal izango du hautagaiak Hautaketa Prozesuetan zehar aurkeztutako dokumentazioa eta emandako informazioa egiazkoa dela, eta, hautagaiaren batek informazio edota dokumentu faltsuak aurkezten baditu, hautagai hori deialditik kanpo utzi ahal izango du automatikoki.

Hautaketa Batzordeak aholkulari adituak izan ditzake egoki irizitako probak aurrera eramateko.

HAMAIKAGARRENA.- LANEAN HASTEA. LAN POLTSAK OSATZEA ETA GESTIONATZEA.

Behin Hautaketa Prozesuak bukatuta, Hautaketa Batzordeak Lan Poltsa bakoitzerako onartuta gelditu diren hautagaien zerrenda argitaratuko du bai www.dbus.es web orrian bai Donostiako Tranbia Konpainiaren iragarki taulan.

Hautagai bakoitzaren azken kalifikazioa, Hautaketa Prozesuaren fase bakoitzean lortutako kalifikazioen batura izango da. Azken kalifikazio horrek zehaztuko du zein den prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrendaren hurrenkera.

Lan poltsa bakoitzerako onartuta gelditu diren hautagaiak azterketa medikua egin beharko dute, eta azterketa hori derrigorrezkoa eta baztertzaila izango da. Bete nahi duten lanpostuaren berezko zereginak betetzea eragozten ez dion gaixotasun edo akats fisikorik ez dutela egiaztatu beharko du, bigarren oinarrian adierazten den moduan.

Azken azterketa medikua gainditzen duten hautagaiak Balio askotarako Gidari-Kobratzaileen, Pertsona minusbaliatuei erreserbatutako Balio askotarako Gidari-Kobratzaileen edota Pertsona Minusbaliatuei erreserbatutako Garbiketa-Erregai depositua betetzea lan poltsetan sartuko dira, 6. eta 7. ataletan definitutako irizpideetan oinarrituta. Horrenbestez, **eskubidea izango dute lanpostu horietan sortzen diren langileen premiak betetzeko, bai behin-behineko langileena bai etorkizunean**

enpresak beharko dituen behin betiko langileena, beti ere oinarri honetan jasotzen diren ebaluazio irizpideak errespetatuta.

Lan poltsen gestioa azkenean lortutako puntuazio globalaren hurrenkerari jarraituta egingo da. Hurrenkera horren arabera lehentasunak ezarriko dira. Helburu horretarako, Pertsona minusbaliatuei erreserbatutako balio askotarako gidari-kobratzaileen lan poltsan dauden hautagaiak balio askotarako gidari-kobratzaileen lan poltsa orokorrean ere egongo dira inskribatuta eta lan poltsa horretan okupatuko duten lekua, kasuan kasu lortutako azken puntuazioaren arabera izango da.

Donostiako Tranbia Konpainia S.A. Balio askotarako gidari-kobratzaileen lan poltsa eta Garbiketa-Erregai depositua betetzea lanetarako lan poltsa gestionatuko ditu Minusbaliatuen Gizarteratzeari buruzko Legeak ezartzen dituen kupoen arabera; beraz, irizpide hori kontuan hartuta, DTK-k zerbitzuan premiarik izango balu, poltsa bateko zein besteko pertsonen deituko die, pertsona minusbaliatuei erreserbatutako lan poltsa biak berdinak izanik lehentasunari dagokionez.

Lan poltsak bi urtetarako izango dira, behin betiko zerrendak argitaratzen diren egunetik hasita.

Halere, arrazoi operatiboak direla eta, lan poltsak beste bi urtez luzatu ahal izango dira.

Denbora horretan zehar, DTK-k Garbiketa-Depositua betetzea lanetarako lan poltsa osatzeko proba berezietarako deia egin dezake. Proba berezi horietan parte hartu ahal izango dute Balio askotarako Gidari-Kobratzaileen lan poltsarako aurkeztu eta hautaketa prozesuaren 1.1 Fasea (Ezagutza Profesionalei buruzko Proba Profesional Teorikoa) gainditu arren 2. eta 3. faseetan (Proba Psikoteknikoak eta Jarrerakoak eta beste baldintza batzuen balorazioa) gutxieneko puntuazioa, hau da, 40 puntutik 24, lortu ez eta, beraz, faseak gainditu ez dituztenek, fase horietan 20 puntu baino gehiago lortu badituzte, bai eta 1.2 fasea (Gidatze Proba Praktikoa), 4. fasea (Elkarrizketa Pertsonala) edo 5. fasea (Formazio ekintza) gainditu ez dituztenek ere.

Osatuko diren lan poltsetan egoteagatik Donostiako Tranbia Konpainian lanean hasten diren pertsonak unean-unean Donostiako Tranbia Konpainian kontratazioari eta jarduera betetzeari buruz indarrean dauden arauen menpe egongo dira, kontratazio modalitatea edozein dela ere.

lido horretan, lan poltsetan dauden pertsonak etengabe ebaluatuko dira, eta ebaluazio hori kontuan hartuko da kontratuak epemugarik gabeko bihurtu aurretik hautagaiek gainditu beharko duten azken ebaluazioan.

Era berean, Deialdi honen ondorioz osatzen diren Lan Poltsetan dauden pertsonak Donostiako Tranbia Konpainian lanean hasten badira, Gaitasun Profesionalaren Egiatagiria eskuratu beharko dute, uztailaren 20ko 1032/2007 Errege dekretuak ezartzen duen egutegiaren arabera, eta beraiek arduratuko dira horretaz.

HAMABIGARRENA.- DATUAK ARGITARATZEA.

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege organikoak ezartzen duena betez, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Donostiako Tranbia Konpainiaren jabetzakoa den fitxategi batean gordeko direla, eta datuak aurkezten zaren hautaprobetarako baino ez direla erabiliko. Halaber jakinarazten zaizu fitxategi horretako datuak eskuratu, zuzendu, aurkatu eta baliogabetzeko eskubidea duzula, eta horretarako eskabidea idatzia bidali beharko duzula helbide honetara: Donostiako Tranbia Konpainia, Fernando Sasiain, 7. 20015 - Donostia-San Sebastian.

Aurkakoa adierazi ezean, zure baimena daukagu Donostiako Tranbia Konpainiaren web orrian eta konpainiaren iragarki taulan zure datu pertsonalak dituzten zerrendak eta emaitzak argitaratzeko.

Interesdunak, bere egoera pertsonala dela-eta bere datuak publikoki ez egiteko funtsezko eta legezko arrazoiak daudela uste badu eta, horrenbestez, bere datuak esandako bideetatik argitaratzearen aurka badago, Hautaketa Batzordeak eskabideari tratamendu berezia ematea erabaki ahal izango du, eta, hala erabakitzen badu, kasua aztertu eta ebazpena emango du.

Deialdira aurkezteak esan nahi du hemen azaltzen diren Hautaketa Prozesuak arautzen dituzten arauak ezagutu eta onartzen direla.

Donostia-San Sebastian, 2010eko uztailaren 4a